

KURSAAL JAUREGIKO IKUS-ENTZUNEZKO EKIPAMENDUAREN MANTENTZE ZERBITZUA KONTRATATZEKO, PROZEDURA IREKI BIDEZKO LIZITAZIOA, ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN BALDINTZA AGIRIAK

KARATULA

1. Erakunde kontratatzailea eta kontratazio-organoa

Erakunde kontratatzailea CENTRO KURSAAL-KURSAAL ELKARGUNEA, S.A. da(hemendik aurrera, KURSAAL).

2. Kontratuaren xedea

Kontratuaren xedea, Kursaal Jauregiko ikus-entzunezko ekipamenduaren mantentze zerbitzu zuzengarriak eta prebentziozkoak eta material suntsikorren aldaketa osatzen dute, baldintza agiri teknikoetan adierazten denaren arabera.

3. Kontratatzailearen profila

Eskaintza KURSAALeko web orrian, kontratatzailearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4. Esleipen prozedura

Kontratua prozedura ireki bidez esleituko zaio, Plegu honetan adierazitako balorazio-irizpideak kontuan hartuta, eskaintza ekonomikoki abantailatsuena egiten duen lizitatzailari.

5. Lizitatzailaren aurrekontua/Balio zenbatetsia

Lizitazioaren urteko gehieneko aurrekontua HOGUITABOST MILA EUROKOA (25.000,00€) da (BEZ kanpo).

Kontratuaren balio zenbatetsia, Urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legeak (hemendik aurrera SPKL), bere 76. artikuluan aurreikusten duenaren arabera, EHUN ETA BERROGEITAMAR EUROKOA (150.000,00€) da (BEZ kanpo).

6. Kontratuaren iraupena

Kontratuaren iraupena lau urtekoa izango da eta gehienez ere bi urtez luzatu ahal izango du Kontratazio Organoak. Honetarako, KURSAALek kontratistari jakinarazpen frogagarria bidali beharko dio kontratua bukatu baino hiru hilabete lehenago, eta kontratista behartuta egongo da kontratua eta baldintza agirietan aurkezten dena betetzea, kontratua irauten duen bitartean, luzapenak barru.

Kontratua 2010eko uztailaren 1an hasiko da.

7. Ahalmena, kaudimen ekonomikoa eta teknikoa

Lizitatzailerek jarraian adierazitako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa dutela ziurtatu beharko dute:

Azken hiru urteetan, gutxienez, 100.000 euroko negozio-bolumena edukitzea urte bakoitzeko, ikus-entzunezko mantentze zerbitzuetan.

8. Esleipena egiteko kontuan hartuko diren negoziazioaren xedeak / balorazio-irizpideak, garrantziaren eta esleitu zaien haztapenaren arabera

Jarraian adierazten dira balorazio-irizpideak, bakoitzari dagokion haztapenarekin batera:

- 1. Proposamen teknikoa: 60 puntu gehienez ere.
- Txosten teknikoa: 20 puntu gehienez ere.
- Pertsonala: 20 puntu gehienez ere.

Langileen prestakuntza eta egokitasuna kontuan hartuko da, baldintza agirien 12. Klausulan eskatzen denaren gutxienekoaren osagarri bezala.

- Hobekuntzak: 20 puntu gehienez ere.

- 2. Proposamen ekonomikoa: 40 puntu gehienez ere.

Eskaintzarik onenak jasoko du puntuazio maximoa eta gainerakoek proportzionalki dagokien puntuazioa lortuko dute, lizitazioaren prezio maximora iritsi arte. Kasu horretan 0 puntu emango zaizkio.

9. Behin betiko bermea

Enpresa esleipendunak BI MILA EUROKO (2.000,00€) behin betiko bermea osatu beharko du, hartutako betebeharrak beteko direla ziurtatzeko.

10. Lanaren ordainketa

Enpresa kontratistak hileko faktura aurkeztu eta ondoren, hilero ordainduko da.

11. Información y lugar y plazo de presentación de las ofertas:

Informazioa: www.kursaal.org - Tel: 943 00 30 00

Eskaintzak aurkezteko lekua:
Centro Kursaal – Kursaal Elkargunea S.A:
Avda. Zurriola 1
20002 Donostia-San Sebastián

Eskaintzak aurkezteko epea: 2010ko martxoaren 16